

# **HAUR ETA NERABEEN EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEN**

**ERABILERAREN ONTZIA BETETZEN LAGUNTZEKO  
EBETE HIZKUNTZA-ZERBITZUEN  
FORMAZIO ETA AHOLKULARITZA ESKAINTZA**

## **EUSKARALDIA NERABEEKIN eta HAURREKIN**

Euskaraldia modu egokian baliatzeko proposamenak eta aholkularitza

## **MINTZAPRAKTIKAK ETXEALDIAN Lehen Hezkuntzako ikasleentzat**

Apiriletik irailera bitarte euskara erabiltzeko aukera izan dezaten programa

## **EUSKARA ERREFORTZU SAIOAK**

**Eskola orduz kanpoko  
jarduera moduan**

Hizkuntzaren lanketa eta ikuspegi ludikoa modu eraginkorrean uztartzeko programak

## **IRAKASLEENTZAT FORMAZIO SAIOAK**

Irakaskuntzak beharrezkoa izaten jarraitzen duenez, irakasleei behar dituzten tresnak eskaintzeko formazioa

## **Eskola JANTOKIETAN eta ESKOLA ORDUZ KANPOKO jardueretan eragiten**

Erabileran eta jarreretan eragiteko oinarritzko bide denez, horretan urratsak emateko baliabideak

## **Gu bai GURASO BERRITSUAK**

Familiei begirako baliabide praktikoak

**Eragileen ezaugarri eta beharretara egokitutako aurkezpenak, formazio saioak, gidak eta proiektuak.**

## MINTZAPRAKTIKAK ETXEALDIAN LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAT

Apiriletik irailera bitarte euskara erabiltzeko aukera izan dezaten programa

Etxealdia dela eta, hainbat hurrek euskara erabiltzeko aukera urriak dituzte. Martxotik irailera bitarte eskolara ez badira joaten epe luze horretan erabili gabe egon daitezke. Baina gaur egun baditugu baliabideak erabilera etxetik bertatik eskaini ahal izateko, modu ludiko eta atseginean gainera!

Lehen Hezkuntzako ikasleei begirako programa bat prestatu dugu, Batxilergoko edo DBH4ko ikasleen laguntzaz aurrera eramateko. Ahozkotasuna eta ludikotasuna oinarri dituen eta etxeetatik egitekoa.

## EUSKARA ERREFORTZU SAIOAK ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERA MODUAN

Hizkuntzaren lanketa eta ikuspegi ludikoa modu eraginkorren uztartzeko programak

Hainbat ikaslek dute euskara indartzeko beharra. Gutxieneko gaitasun maila egoki bat behar da ikasketak aurrera eramateko eta arrazoi ezberdinak tarteko ikasle batzuk zailtasunak dituzte gaitasun horretara iristeko.

Azken urteetan Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik garatutako hainbat tresna oinarri hartuz, hizkuntza-gaitasunen lanketa eta eskola orduz kanpoko jardueren izaera ludikoa uztartzen dira modu orekatu eta eraginkorren: hizkuntza-errutinak, hizkuntza-jolasak, erabilera eskatzen duten dinamikak eta abar.

Ikasturtean zeharreko jarduera izan daiteke edo opor garaikoa. Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat baliagarria. Ikasturte honetan, adibidez, Bilboko Garcia Rivero ikastetxean ikasturte osoan zehar LHko ikasleak aritu dira eta aurreko udaran Donostiako Altza institutuko ikasleekin egindako programaren balorazioa ere oso positiboa izan zen.

## ESKOLA JANTOKIETAN ETA ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN ERAGITEN

Erabileran eta jarreretan eragiteko oinarrizko bidea denez,  
horretan urratsak emateko baliabideak

Haur eta nerabeen euskararen erabileran eta euskararekiko jarreretan aurrera egiteko lehentasunezko esparrua da eskola orduz kanpoko jarduerena. Norabidea argia da: gero eta jarduera gehiago euskaraz eskaintzea, jarduera horietako hezitzaileei euskaraz egiteko eskatzea, eta euskararen erabilera sustatu dezaten baliabideak eskura jartzea.

Ebetetik horri begirako formazio saio praktikoak eskaintzen ditugu, jardueren ezaugarrietara egokituak: kirola, aisialdia, kultur jarduerak eta abar. Eskola jantokietako hezitzaileen kasuan, gainera, jarduera kudeatzen duen enpresaren bidez egin daitezke ikastaroak. Baina, horretaz gain, aholkularitza ere eskaintzen dugu eta proiektu iraunkorretan ere parte hartzen dugu.

Ebetetik lan handia egin dugu azken urteetan arlo honetan. Horren adibide:

- Gidak sortu ditugu: Haur eta gateen jardueretarako hezitzaileentzat gida (Arabako Foru Aldundia), Ludoteka eta Gaztelekuetako hezitzaileentzat gidak (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mingainak Dantzan Udalekuetarako landutako estrategiak (Eusko Jaurlaritza) eta abar.
- Formazio saioak eman ditugu arlo ezberdinetako eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileekin: Donostia, Amorebieta, Barakaldo, Bergara, Arrasate, Eibar, Iruñea eta abar.
- Proiektu iraunkorrak eta aholkularitza ere lantzen ditugu: Basauriko Udalaren bidez ikastetxe eta kirol klubekin, Zaldibarko Udalaren bidez kirol elkarteekin, Gasteizko Udalaren bidez eta Geu elkartearekin elkartearekin elkarlanean ikastetxe eta guraso elkarteekin, Arabar Errioxako mankomunitatearen bidez eta Ttiki Ttaka elkartearekin elkarlanean kirol klub eta guraso elkarteekin, Pasaiako Udalaren bidez aisialdi eta kirol jarduerekin eta abar.

## GU BAI GURASO BERRITSUAK

### Familiei begirako baliabide praktikoak

Gurasoek eragin handia dute seme-alaben hizkuntzen ikaste prozesuan, hizkuntza-ohituretan eta hizkuntzekiko jarretan. Haur eta nerabeak hizkuntza-sozializazio prozesu batean daude eta familiek eragin handia dute prozesu horretan.

Horri begira hainbat programa lantzen dira udaletatik eta ikastetxeetatik.

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik ere programa horietan laguntzeko tresna praktikoak sortu eta eskaini ditugu azken urteetan. Besteak beste:

- Gurasoentzako lantegi praktikoak: *Kuku, hurrekin hitz egiten hasteko* eta *Opor garaiko bizipenen kutxa*, euskara gutxi dakiten gurasoek seme-alabekin euskara ere erabil dezaten aholku eta proposamen zehatzekin.
- Zalantzak eta kezak argitzeko hitzaldiak: eleaniztasunera begirako aholkuak, eskolako lanekin laguntzera begirako hitzaldia, seme-alaben hizkuntza-ohiturak lantzera begirako aholkuak eta abar.
- Gurasoen euskara batzordeei begirako, edo horiek sortzera begirako, formazio saioak eta aholkularitza.

Horretaz gain materiala ere sortu dugu. Adibidez: *Hizkuntzen munduan gozatuz* (Alkarbide) edo berri berria den *Gu Bai Guraso Berritsuak bideoak eta esku-orriak* (Eusko Jaurlaritza).

## IRAKASLEENTZAT FORMAZIO SAIOAK

Irakaskuntzak beharrezkoa izaten jarraitzen duenez, irakasleei behar dituzten tresnak eskaintzeko formazioa

Irakasleen lana oinarritzkoa da gure gizartean euskararen ezagutzak eta erabilerak aurrera egin dezan. Ikastetxeen lanari esker lortu da milaka eta milaka haur eta nerabek euskara ikastea. Argi dago ikastetxeen lana ezinbestekoa dela, baina era berean argi dago eskolek mugak dituztela bai hizkuntza-gaitasunak garatzerakoan eta bereziki euskararen erabilera soziala indartzerakoan.

Eskolen zeregin horretan irakasleek baliabideak behar dituzte: gaur egungo errealitatera egokitzen diren estrategiak eta tresnak.

Ebete hizkuntza zerbitzuetatik norabide horretan lan egiten dugu eta urtero 50 irakasle talderekin baina gehiagorekin egiten ditugu ikastaroak, horietako hainbat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Irale programaren bidez.

Zenbait saiotako ikastaroak edota saio puntualak izaten dira, eta besteak beste honako edukiak lantzen ditugu:

- Euskararen erabilera eta ahozkotasuna lantzeko estrategiak: ikasgelan eta ikasgelaz kanporako oinarriak, baliabideak eta tresnak.
- Hizkuntza trataera integrala eta integratua: eleaniztasunerantz aurrera egiteko oinarriak eta aholkularitza, euskara eta ahozkotasuna erdigunean jarrita.
- Gurasoak eta eskola norabide berean: guraso bileretan emateko mezuak eleaniztasunari, euskaraz ikasteari eta euskararen erabilerari buruz.
- Ikasleen hizkuntza-sozializazioan eragiteko ikastaroak eta proiektuak: euskararekiko jarreretan eragiteko oinarriak, proposamenak, estrategiak eta dinamikak.

## EUSKARALDIA NERABEEKIN ETA HAURREKIN

Euskaraldia modu egokian baliatzeko proposamenak eta aholkularitza.

Euskaraldia ekimen eraginkorra izan daiteke haur eta nerabeen hizkuntza-jarreretan eta erabileran eragiteko. Baina helduei begirako ekimen bat da eta ezin da bere horretan haurrekin eta nerabeekin erabili. Hori bai, hainbat modu daude egokitzeko edota baliatzeko.

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik hainbat proiektutan parte hartu dugu arlo honetan, eta antolatzaileen aukeretara eta nahietara egokitzen saiatzen gara. Besteak beste:

- Nerabeen Euskaraldia Lasarte-Oriako Oriarte institutuan ikerketa
- Mingainak Dantzan Udalekuetan Ahobizi dinamikak
- Euskaraldira begirako proposamenak ikastetxe eta institutuentzat 2018an
- Gazte eragileen batzordeen dinamizazioa Arabar Errioxan, Sopelan, Bergaran eta abar.
- Gazte eragileen batzordeen topaketak.